

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 397/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, 2009ko maiatzaren 6koa, 1080/2006 (EE) erregelamendua aldatzen duena, Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsari buruzkoa, etxebizitzetan energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak diruz laguntzeari dagokionez.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: « *Reglamento (CE) n° 397/2009 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 6 de mayo de 2009, que modifica el Reglamento (CE) n° 1080/2006, relativo al Fondo Europeo de Desarrollo Regional, por lo que se refiere a la subvencionabilidad de las inversiones en eficiencia energética y energías renovables en las viviendas (Diario Oficial de la Unión Europea, L 126 de 21/5/2009)* »

**397/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,**

**2009ko maiatzaren 6koa,**

**1080/2006 (EE) erregelamendua aldatzen duena, Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsari buruzkoa, etxebizitzetan energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak diruz laguntzeari dagokionez.**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatua, eta, bereziki, haren 162. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute,

Tratatuko 251. artikulua araututako prozedurarekin bat [2],

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europar Batasunean epe luzerako hazkunde iraunkorra bermatze aldera, Batzordeak Ekonomia Suspertzeko Europako Planari buruzko komunikazioa onartu zuen 2008ko azaroaren 26an. Komunikazio horretan aintzat hartzen da eraikinen –besteak beste, etxebizitzaren– eraginkortasuna hobetzeko inbertsioen garrantzia.

(2) Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsak etxebizitzaren sektoreko jarduerak laguntzen ditu, besteak beste energia-eraginkortasunaren aldekoak, baldin eta Estatu kideak Europar Batasunera bildu badira 2004ko maiatzaren 1ean edo, horren ondoren bildu badira, baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1080/2006 (EE) erregelamenduko 7. artikuluen 2. paragrafoko baldintzak betetzen badituzte. Etxebizitzaren sektorean energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak bultzatzeko inbertsio horiek Estatu kide guztien esku egon behar dute.

(3) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko apirilaren 5eko 2006/32/CE zuzentaraua energiaren eta energia-zerbitzuen azken erabileraren eraginkortasunari buruzkoa da, eta haren helburuekin bat datozen programa publikoen inbertsioak laguntzen ditu [4].

(4) EE Tratuaren 158. artikuluko kohesio-politikarako helburuak betetzen direla bermatzeko, jarduerak gizarte-kohesioa bultzatu behar dute.

(5) 2007ko Urteko Txostenean, Europako Kontu Auzitegiak agintari legegileei eta Batzordeari gomendatu zien etorkizuneko gastu-programak berrikusteko prest egoteko, diruz lagun daitezkeen kostuen kalkulu-oinarria sinplifikatzearen aukera aztertzeko, eta sarriago ordaintzeko oroharreko kopuru globalak edo ehunekoak, eta ez “benetako kostuak”.

(6) Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsaren laguntza jasotzen duten esku-hartzeen kudeaketa, administrazioa eta kontrola behar bezain sinpleak izan daitezzen –bereziki emaitzetan oinarritutako diru-itzulketak bat dagoenean–, diruz lagun daitezkeen beste hiru modu gehitu behar dira: zehar-kostuak, kopuru globalak eta oroharreko ehunekoak, banakako kostuen baremo estandarretan oinarriturik.

(7) Diru-laguntzen segurtasun juridikoa bermatzeko, diruz lagun daitezkeen kostu gehigarri horiek aplikatu ahal izango zaizkie Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsaren laguntza guztiei. Beraz, atzeraeraginezko aplikazioa egon behar du, 2006ko abuztuaren 1etik aurrerakoa, orduan jarri baitzen indarrean 1080/2006 (EE) erregelamendua.

(8) Egokia da, beraz, 1080/2006 (EE) erregelamendua aldatzea.

# *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

## *1. artikulua*

1080/2006 (EE) erregelamenduaren 7. artikulua jarraian adierazten den moduan aldatuko da:

1) paragrafo hau gehituko da:

"1 *bis*. Estatu kide bakoitzean, dauden eraikinetan energia-eraginkortasuna hobetzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko gastuek Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsaren laguntza osoaren %4 arteko laguntza jaso ahal izango dute.

Estatu kideek nazio-arauegian finkatuko dituzte laguntzak jaso ditzaketen etxebizitza-kategoriak, 1083/2006 (EE) erregelamenduaren 56. artikuluko 4. paragrafoari jarraiki, gizarte-kohesioa sustatze aldera".

2) 2. paragrafoaren sarrerako esaldiaren lekuan ondoko testu hau jarriko da:

"2. Etxebizitza-gastuak, 1 *bis* paragrafoan aipaturiko energia-eraginkortasunari eta energia berriztagarriak erabiltzeari buruzkoak izan ezik, diruz lagunduko dira baldin eta Estatu kideak Europar Batasunera bildu badira 2004ko maiatzaren 1ean edo horren ondoren, eta kasu hauetan:"

3) paragrafo hau gehituko da:

"4. Honako kostu hauek jaso ahal izango dute Eskualdeen Garapenerako Europako Funtsaren laguntza, 1. paragrafoari jarraiki, baldin eta nazioko arauak errespetatzen badituzte, baita kontabilitate-arauak ere, eta berariazko baldintza hauek betetzen badituzte:

i) oroharreko oinarri baten gainean deklaraturako zehar-kostuak, esku-hartze baten kostu zuzenen %20 arte,

ii) Estatu kide bakoitzak erabakitako banakako kostuen baremo estandarrak aplikatuz kalkulatutako oroharreko kostuak,

iii) esku-hartze baten kostuak osorik edo hein batean estaltzen dituzten kopuru globalak.

Era berean, i), ii) eta iii) tartekietako aukerak elkarren artean konbina daitezke, baldin eta bakoitzak diruz lagun daitezkeen kostuen kategoria desberdin bat jasotzen badu, edo proiektu desberdinetara bideratzen badira esku-hartze beraren barruan.

i), ii) eta iii) tartekietako kostuak aurrez finkatuko dira, kalkulu zuzen, bidezko eta egiaztagarri bat erabiliz.

iii) tartekiko kopuru globalek ez dituzte 50.000 euro gaindituko."

## *2. artikulua*

Erregelamendu hau indarrean sartuko da Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit egunera.

Nolanahi ere, 1. artikulua 3. paragrafoa atzeraeraginez aplikatu daitezke 2006ko abuztuaren 1etik aurrera.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak dira, eta Estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzeak izango dira.

Estrasburgon emana, 2009ko maiatzaren 6an.

*Europako Parlamentuaren izenean,*  
*Presidentea*  
H.-G. PÖTTERING

*Kontseiluaren izenean,*  
*Presidentea*  
J. KOHOUT

397/2009 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 126/3, 2009/5/21ekoa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

[1] 2009ko otsailaren 25eko irizpena (oraindik egunkari ofizialean argitaratu gabea).

[3] Europako Parlamentuaren irizpena, 2009ko apirilaren 2koa (oraindik egunkari ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren erabakia, 2009ko maiatzaren 5koa.

[3] L 210 EO, 2006/07/31koa, 1. or.

[4] L 114 EO, 2006/04/27koa, 64. or.